

LUKENE
SUGEGORRI TXIRENE



Goazen hondartzara
6




**Eguraldi ederra egiten du!
Ekainaren 24a da eta uda ailegatu da.
Lukene eta bere lagunak hondartzara doaz.
Zerrenda bat egin dute behar dutenarekin: bainujantzia,
eguzkitarako betaurrekoak, liburu bat, guardasola, janaria,
flotagailua, pilota, barruko arropa, oihala, pala eta galbahea.**




**Trenez doaz.
Trena oso azkar doa eta garbi-garbi dago.
Jendez gainezka doa, denek hondartzara joan nahi dute-eta.**



**Hondartzan hondarra bero dagoenez, kontuz ibili!
Zeru urdinean, eguzki dirdiratsua eta laino ilunak tartekatzen dira.
Jende piloa dago, baina oso leku ederra aurkitu dute itsasertzean.**



**Orain bakoitza gehien gustatzen zaiona egiten ari da:
Maialen Amaiarekin gaztelu bat egiten ari da;
Jonesek kometa aireratu du;
Natxo surfa egiten ari da buggi ganean; Lukene eguzkitan etzanda
dago, betaurrekoak jarrita, eta beste guztiak, baloiaz jolasten.**



**Bat-batean eguraldia aldatu egin da.
Gero eta hodei gehiago dago eta euria hasi da.
Mantso hasi da, baina, berehala, zaparrada bihurtu da.
Aterpe bila doaz, korrika, herriko elizara.
Blai-blai eginda, hotzez eta gose daude.**



Hala ere, ondo dago ondo amaitzen dena,
eta gure lagunek elizapean bazkaldu dute.
-“Sagarra emango didazu, mesedez?”
-“Bai, hemen daukazu”

Goazen hondartzara



Ipuina irakurri aurretik

Egin lau urtaroak adierazten dituzten marrazki sinpleak:

UDABERRIA	UDA
UDAZKENA	NEGUA



Ipuina irakurri ondoren



1. Irakurri ipuina. Hiztegian bilatu hitz eta esaldia ezezagunak; bestela, galdetu.



2. Bikoteka, ahoz erantzun:

• Nor dira?



• Noiz?

• Non daude edo nora doaz?



• Nola doaz?

• Zer egiten dute hondartzan?



• Zer gertatzen da?

• Nola amaitzen da?



3. Idatzi emandako erantzunak:

1.

2.

3.

4.

5.

6.

7.



4. Idatzi erantzunak. Erabili puntuak eta puntuazio-ikurrak, testua lotzeko.



5. Erantzun galderei:

▪ Nolakoa da eguraldia?



▪ Zer egun da?

▪ Zer da, udaberria edo uda?



▪ Zer hizkuntzatan ezagutzen dituzu 4 urtaroen izenak? Egin kartel bat.

▪ Badakizu noiz hasten eta amaitzen den urtaro bakoitza?



URTAROAK	HASTEN DA	AMAITZEN DA



▪ Egun berberak al dira leku guztietan?



6. Bilatu hondartzan erabiltzen diren gauzak:

B	E	T	A	U	R	R	E	K	O	A	K
K	U	B	O	J	A	N	A	R	I	A	G
A	L	A	P	K	O	M	E	T	A	A	A
L	I	B	U	R	U	K	A	T	Z	Z	Z
A	U	L	I	A	G	A	T	O	L	F	T
O	N	T	A	O	I	H	A	L	A	W	E
B	A	I	N	U	J	A	N	T	Z	I	L
P	O	P	I	L	O	T	A	R	R	A	U
S	A	G	U	A	R	D	A	S	O	L	A



7. Aurkitutakoa idatzi eta egin marrazki bat.

- | | |
|----|-----|
| 1- | 6- |
| 2- | 7- |
| 3- | 8- |
| 4- | 9- |
| 5- | 10- |



8. Egia edo gezurra

EGIA EDO GEZURRA	E	G
Autobusez joan dira		
Zerua urdin dago		
Hotz egiten du		
Hondarra bero dago		
Trena azkarra eta zikina da		
Hodeirik ez dago zeruan		
Eguzkiak dirdira egiten du		
Hondartzan ez dago inor		
Itsasertzean jarri dira		
Mendira doaz		



9. Zer egiten ari dira? Egin marrazki bat.

Maialen gaztelu bat egiten ari da	Jonek kometa aireratu du
Umeak baloiaz jolasten ari dira	Natxo surf egiten ari da



10. Eta zu? Erantzun galdera hauei:

▪ Udan sarritan joaten al zara hondartzara?



▪ Itsasoan igeri egitea gustatzen al zaizu?



▪ Igerilekura maiz joaten al zara?

▪ Ur hotzetan igeri egitea gustatzen zaizu?



▪ Eguzkitan etzanda egotea gustatzen zaizu?







Kontrol-orria

Goazen hondartzara

Ipuina irakurri baino lehen

Egin lau urtaroak adierazten dituzten marrazki sinpleak:

	
UDABERRIA	UDA
	
UDAZKENA	NEGUA

Ipuina irakurri ondoren

1. Irakurri ipuina. Hiztegian bilatu hitz eta esaldi ezezagunak; bestela, galdetu.



2. Bikoteka, ahoz erantzun:

- Nor dira?

Lukene eta bere lagunak: Maialen, Jon, Amaia eta Natxo



- Zer egun da?

Ekainaren hogeita laua

- Non daude edo nora doaz?

Hondartzara doaz



- Nola joan dira?

Trenez joan dira

- Zer egin dute hondartzan?

Gehien gustatzen zaiena egin dute hondartzan: Maialenek eta Amaiak, gaztelu bat; Jonek, kometa aireratu; Natxok, surfa; Lukene, eguzkitan etzan...



- Zer gertatu da?

Bat-batean euria egiten hasi da

- Nola amaitu da?

Elizaren arkupeetan bazkaldu dute.



3. Idatzi emandako erantzunak:

1. **Lukene eta bere lagunak: Maialen, Jon, Amaia eta Natxo**
2. **Ekainaren 24an**
3. **Hondartzara doaz**
4. **Trenez joan dira**
5. **Gehien gustatzen zaiena egin dute hondartzan: Maialenek eta Amaiak, gaztelu bat; Jonek, kometa aireratu; Natxok, surfa; Lukene, eguzkitan etzan...**
6. **Bat-batean euria egiten hasi da**
7. **Elizaren arkupeetan bazkaldu dute.**



4. Idatzi erantzunak. Erabili puntuak eta puntuazio-ikurrak, testua lotzeko.:

Ekainaren hogeita lauan, Lukene eta bere lagunak hondartzara doaz. Trenez joan dira. Hondartzan gehien gustatzen zaiena egin dute: Maialenek eta Amaiak, gaztelu bat; Jonek, kometa aireratu; Natxok, surfa; Lukene, eguzkitan etzanda... Bat-batean euria egiten hasi da eta elizaren arkupeetan bazkaldu dute.



5. Erantzun galderei:

1. Nolakoa da eguraldia?

Eguraldi ederra egiten du

2. Zer egun da?

Ekainaren hogeita laua da

3. Zer da, udaberria edo uda?

Uda da



4. Zer hizkuntzatan ezagutzen dituzu 4 urtaroen izenak? Egin kartel bat.

Uda Verano Summer Estero Été	Udazkena Otoño Autumn Autunno Automme	Negua Invierno Winter Inverno Hiver	Udaberria Primavera Spring Primavera Printemps
--	---	---	--



5. Badakizu noiz hasten eta amaitzen den urtaro bakoitza?

URTAROAK	HASTEN DA	AMAITZEN DA
UDABERRIA	Martxoaren 21ean	Ekainaren 23an
UDA	Ekainaren 24an	Irailaren 20an
UDAZKENA	Irailaren 21ean	Irailaren 20an
NEGUA	Abenduaren 21ean	Martxoaren 20an



- Egun berberak al dira leku guztietan?

6. Bilatu hondartzan erabiltzen diren gauzak:

B	E	T	A	U	R	R	E	K	O	A	K
K	U	B	O	J	A	N	A	R	I	A	G
A	L	A	P	K	O	M	E	T	A	A	A
L	I	B	U	R	U	K	A	T	Z	Z	Z
A	U	L	I	A	G	A	T	O	L	F	T
O	N	T	A	O	I	H	A	L	A	W	E
B	A	I	N	U	J	A	N	T	Z	I	L
P	O	P	I	L	O	T	A	R	R	A	U
S	A	G	U	A	R	D	A	S	O	L	A



7. Aurkitutakoa idatzi eta egin marrazki bat.

- Betaurrekoak
- Kubo
- Janaria
- Pala
- Kometa
- Liburu
- Flotagailua
- Oihala
- Bainujantzi
- Pilota
- Guardasola
- Gaztelua



8. Egia edo gezurra

EGIA EDO GEZURRA	E	G
Autobusez joan dira		X
Zerua urdin dago	X	
Hotz egiten du		X
Hondarra bero dago	X	
Trena azkarra eta zikina da		X
Hodeirik ez dago zeruan		X
Eguzkiak dirdira egiten du	X	
Hondartzan ez dago inor		X
Itsasertzean jarri dira	X	
Mendira doaz		X



9. Zer egiten ari dira? Egin marrazki bat.

Maialen gaztelu bat egiten ari da	Jonek kometa aireratu du
Umeak baloiaz jolasten ari dira	Natxo surf egiten ari da



10. **Eta zu? Erantzun galdera hauei:**

1. Udan sarritan joaten al zara hondartzara?



2. Itsasoan igeri egitea gustatzen al zaizu?



3. Igerilekura maiz joaten al zara?

4. Ur hotzetan igeri egitea gustatzen zaizu?



5. Eguzkitan etzanda egotea gustatzen zaizu?

